

GOBERNU BATZARRA

2016. 11. 21

- Alkatea:** Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko azaroaren hogeitabatean, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
- Olatz Peon Ormazabal**
- Zinegotziak:**
- Patxi Amantegi Zubiria**
Nerea Letamendia Belloso
Iñigo Alonso Sarasibar
Jokin Azkue Arrastoa
- Idazkaria:**
- Jose Luis Unanue Ugalde**
- Kontuhartzailea:**
- Ainhoa Molinos Zubiaurre**
- 1.- Aurreko akta onartzea.
 - 2.-Arrillaga Plazako autoentzako aparkalekuen erabilera-zesiorako baldintza agiriaren proposamena.
 - 3.- Kondeaneko Aldapa 11-n babes ofizialeko 11 etxebizitza gauzatzeko obren 4.ziurtagiria (4/16 faktura).
 - 4.- Ferialekuan barne-erreforma egiteko proiektuan jasotako obren 1. ziurtagiria (16-21/01/10.16 faktura).
 - 5.- 2016ko urritik 2017ko iraila bitartean Fronton jatetxearen hileko kanona, Maidonoa jatetxea, s.l.,-k ordaindu beharrekoa.
 - 6.-2016ko urritik 2017ko iraila bitartean Beotibar edaritegia-kafetegiaren hileko kanona, Juan Luis Izaguirre Erasunek ordaindu beharrekoa.
 - 7.- 37/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko azaroaren 14an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.-Arrillaga Plazako autoentzako aparkalekuen erabilera-zesiorako baldintza agiriaren proposamena.

2013 urtean, Arrillaga plazako autoentzako aparkalekuen erabilera-zesiorako baldintza plegua onartu zen, ondorioz, 105 aparkaleku erabilera lagapenean eskaini ziren aipatutako plazan.

Baldintza pleguan onartu zenaren arabera, erabilera lagapenaren epea hiru urtetakoa zen, hau da, urtebeteko kontratua eta urtebeteko bi luzapen.

Beraz, 2013ko azaroaren 1ean hasi zen erabilera, 2016ko urriaren 31n amaitu da.

Horiek horrela, eta Tolosako Udalerriko bizilagunek aparkalekuak bilatzeko dituzten zailtasunak eta 2013 urtean erabilera lagapenaren baldintza plegua onartzeko aintzat izan ziren arrazoiak indarrean dirautela kontutan izanda, Arrillaga Plazan autoen aparkalekuen zesiorako baldintza agiri berria onartzea proposatzen da.

Aurrekoarekiko aldaketa bakarra epearena izango da, oraingoan, 3 urtetarako lagapena proposatzen baita eta itaundutako iraupen-epea amaitzean kontratua urtetik urtera berritu al izango da beste bi urtetan.

Prezioari dagokionez, aurreko lagapenerako prezioa kalkulatzeko irizpideak mantendu dira, hau da, Artxipiaga plazan 20 urtetarako kontzesioan eman ziren aparkalekuek hilabeteko zuten kostuaren kalkuluetan oinarrituta, 480 eurotan mantentzea proposatzen da.

Prezioak urtetik urtera Tolosako Udalaren Ordenantza Fiskalak, jabari publikoen erabileragatik, ezartzen dituen aldaketak jasango ditu.

Bestalde, azkeneko hiru urtetan aparkalekuen erabiltzaile izan direnei aukera emango zaie eskaera berritu eta esleipenean parte hartzeko.

Aurreko guztia ikusita, Hirigintzako batzordearen diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Arrillaga plazako autoentzako aparkalekuen erabilera zesiorako baldintza agiria onartzea.

Bigarrena.- Espedienteari hasiera ematea Baldintza agiria Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz. Esleipenean parte hartzeko eskabidea eta dokumentazioa 30 egunetako epean aurkeztu beharko dira, Baldintza agiria argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Gainera, ahalik eta publizitaterik zabalena egiteko, esku-orriak banatuko dira.

3.- Kondeaneko Aldapa 11-N babes ofizialeko 11 etxebizitza gauzatzeko obren 4. ziurtagiria (04/16 faktura).

Tolosako Udalak Kondeaneko Aldapa UTE-ri esleitu zion "Kondeaneko Aldapako 11- 15.3 azpiesparruan Babes Ofizialeko 11 etxebizitza" egiteko obren kontratua, eta 732.842,40€ izan zen esleipenaren zenbatekoa.

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia..... Zenbatekoa

1. ziurtagiria.....	01/16.....	100.842,98€
2. ziurtagiria.....	02/16.....	76.294,90€
3. ziurtagiria.....	03/16	92.610,55€

GUZTIRA.....269.748,43€

Orain aurkezturiko ziurtagiria, obrako bigarrena, honakoa da:

4. ziurtagiria..... 04/16..... 76.564,24€

Ziurtagiria ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea "Kondeaneko Aldapako 11-15.n Babes Ofizialeko 11 etxebizitza" egiteko obren 4. ziurtagiria, 76.564,24€koa.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea adjudikaziodunari, Kondeaneko Aldapa UTE-ri eta Kontuhartzaitzari.

4.- Ferialekuan barne-erreforma egiteko proiektuan jasotako obren 1. ziurtagiria (16-21/01/10.16 faktura).

Tolosako Udalak Construcciones Echaide, S.A., enpresari esleitu zion "Ferialekuan barne-erreforma egiteko proiektua"-n jasotako obren kontratua, eta 142.030,38€ izan zen esleipenaren zenbatekoa.

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia..... Zenbatekoa

1. ziurtagiria..... 16-21/01/10.16..... 53.654,93€

GUZTIRA.....53.654,93 €

Ziurtagiria ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea "Ferialekuan barne-erreforma egiteko proiektua"-n jasotako egiteko obren 1. ziurtagiria, 53.654,93€koa.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea adjudikaziodunari, Kondeaneko Aldapa UTE-ri eta Kontuhartzaitzari.

5.- 2016ko urritik 2017ko iraila bitartean Fronton jatetxearen hileko kanona, Maidonoa jatetxea, s.l.,-k ordaindu beharrekoa.

Kontuhartzaileak egindako txostena ikusirik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Maidonoa jatetxea, S.L., enpresari 2016eko urritik 2017ko iraila bitartean Fronton jatetxearen hileko kanona % 0,375 aplikatzea. Beraz, 993,69 eurokoa izango da hileko kanona.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

6.-2016ko urritik 2017ko iraila bitartean Beotibar edaritegia-kafetegiaren hileko kanona, Juan Luis Izaguirre Erasunek ordaindu beharrekoa.

Kontuhartzaileak egindako txostena ikusirik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Juan Luis Izaguirre Erasuni 2016eko urritik 2017ko iraila bitartean Beotibar kafetegiaren hileko kanona % 0,375 aplikatzea. Beraz, 2.318,61 eurokoa izango da hileko kanona.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

7.-37/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **37/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **187.384,60 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- **37/2016** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 09:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA

Olatz Peon Ormazabal

Jose Luis Unanue Ugalde